

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ JABETZE ESKOLAK

Maria Pazos aktibista feminista, Biterin

Pentsio-sistema eta ekonomian emakumeen ikuspuntua txertatzeko proposamenak egingo ditu aktibista feministak gaurko hitzaldian, 18:00etan. Irekia eta gaztelaniaz izango da.

HERNANIKO Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta, *Emakumeak kontuan hartuko dituen pentsio-sistema eta ekonomia baterako proposamen feministak* hitzaldia eskainiko du Maria Pazos Moran ikerlari eta aktibista feministak, gaur, arratsaldeko 18:00etan hasita,

Biteri kultur etxean. Hitzaldia gaztelaniaz izango da.

Zerga sistemen eta genero desberdintasunen arteko harremana

Solasaldian Pazos Moranen ikerketa izango dute hizpide. Hain zuzen, herrialde ezber-

dinetako zerga-sistemen eta genero desberdintasunaren arteko harremana alderatuz burututakoa.

Horren harira, gainera, *Contra el patriarcado. Economía feminista para una sociedad justa y sostenible* liburua argitaratu berri du.

Hernanikoa ez da izango hitzaldi bakarra

Gipuzkoako Jabetze Eskolen Sarearen baitan antolatutako ekimena da; bertan, Hernani egoteaz gain, Arrasate, Azpeitia, Eibar eta Urola Garaia ere badaude. Horregatik, horietan ere eskainiko du hitzaldia. ■

■ KALERATZEA STOP

Mahai-ingurua eta hitzaldiak, gaur eta bihar

'Etxebizitza arazoetarako konponbideak' izenburupean, mahai-ingurua egingo dute gaur Eusko Legebiltzarreko alderdi desberdinetako parlamentariekin; 19:30etan, udaletxeko areto nagusian.

ETXEBIZITZAREN Astea azken txanpan sartzen ari da eta indar haundiarekin amaitu nahi dute. Honela, ekintza desberdinak antolatu dituzte aste guztian zehar. Dagoeneko egin dituzte hainbat jarduera, eta larunbat honetan boro-bilduko dute azken festarekin.

Gaur egingo dute asteko aurreneko ekintza udaletxeko areto nagusian, 19:30etan hasita. Benetan interesgarria izango da eta argigarria askorentzat. Landuko den gaia *Etxebizitza arazoetarako konponbideak* izango da.

Mahai-ingurua antolatu da, eta Eusko Legebiltzarreko parlamentariak hartuko dute parte: Maite Otamendi EH Bildutik, Irune Berasaluze EAJtik, Tinixara Guanche Elkarrekin Podemosetik, eta Patricia Borinaga PSE-EEtik. Etxebizitza arloko beren taldeko arduradunak dira denak.

Bestalde, Kaleratzeak Stop taldearen ordezkari gisa, Marce Garcia ere izango da bertan;



Urriaren 4an kontzentrazioa antolatu zen eta hitzaldia eskaini zen Plaza Berrin.

Kaleratzeak Stop Euskadiko Etxebizitzaren koordinatzailea da Garcia.

Irati Sarasua arituko da moderatzaile-lanak egiten. Euskera-gaztelania aldibereko itzulpen zerbitzua egongo da, baita zeinu-hizkuntzako interpreteta ere.

Gabriel Zelaian hitzaldia, bihar ordu berean

Asteak ez du etenik eta bihar hitzaldia egongo da, oraingo honetan, Gabriel Zelaia eraikineko Iturola espazioan. 19:30-etatik aurrera, *Etxebizitzaren esperientzia berriak: erabilera lagatzeko kooperatibak* gaia

izango dute hizpide.

Gaia lantzeko, bertan izango dira Anna Rubio, Bartzelonako La Borda Kooperatibako kidea, eta Nahiko Arraiza eta Laura Muelas, Donostiako Abaraskako kideak. Beraiek bizitakoa, beren esperientzia kontatuko dute. ■

■ PELOTA MUNDIALA

Hernaniarrek, garaipenak

Amaia Irazustabarrenak eta Aitor Gorrotxategik ezin hobeto hasi dute Bartzelonako Munduko Txapelketa. Irazustabarrenak, Maider Mendizabalekin batera, Kuba erraz gainditu zuten 2-0 (15-3 eta 15-6) gomazko paletan. Aitor Gorrotxategik ere Kubaren aurka jokatu zuen eskuz binaka eta Eneko Yoldirekin batera 2-0 (10-1 eta 10-0) irabaziz. ■

■ MENDIRIZ MENDI

Bilera, lokalean

2019ko egutegia prestatzeari ekiteko, bilera egingo du Mendiriz Mendik gaur, 20:00etan, lokalean. Bestetik, igandeko irteerarako izenematea ostegunean amaituko da. ■

■ KALE GORRIAN

Kalean bizi direnen kontaketa

Ostegunetik ostiralerako gauean kalean bizi direnen zenbaketa egingo da. Kale Gorrian ikerketa bi urtetik behin egiten da eta bolondresak behar dira zenbaketa egiteko. Udalak animatu nahi ditu herritarrak eta interesa duenak zerbitzuzozialak@hernani.eus helbidera idatzi behar du edo 943 55 78 54 telefonora deitu. ■

■ UDALA

Zinkoeneako irteera, itxita

Andrekaletako konponketak direla eta bihar arte Zinkoeneako irteera erabat itxita dago. Atzieta kalea bertakoek besterik ezin izango dute erabili. Irteera Andrekaletik egingo dute, Plazaraino. ■

■ LITERATURA


Solasaldia, gaur liburutegian

Haruki Murakamiren *Gauaren sakonean* liburuaren literatur solasaldia euskeraz dago gaur, 19:30etan, liburutegian. Ana Mayozenk dinamizatuko du. ■

■ GAZTELEKUA

Dixit, mahai jolasa

Gaur Gaztelekuan, arratsaldean, Dixit mahai jolasa antolatu da eta hurbiltzen direnak aukera izango dute bertan jolasteko. ■





☎ TAXIAK: 943 550093 | UDALZAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
✚ / Egunez: A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 / Gaeuz: Castilla Urbieta, 7 (Hernani) 943 552941

EGURALDIA
GAUR Giro eguzkitsuz gozatzeko aukera izango da, baina zeruan laino batzuk ere ikusiko dira tarteka. Goizean haizea ahul eta al-dakor ibiliko da eta aratsaldean iparraldera egingo du. **Min.12° / Max.19°**
BIHAR Goizean giroa argia izango da, baina orduak igaro ahala zerua estaltzen joango da eta aratsaldean euritara joko du. Temperaturaren aldaketarik ez. **Min.13° / Max.20°** (euskaime)

■ PSE-EE PRENTSA OHARRA

«Udaltzaingoaren baliabideak haunditzea eskatzen dugu»

Ricardo Crespo bozeramaileak dio EH Bilduk azterketa bat jarri behar duela abian, udal talde guztiekin, «udaltzaingo eraginkorra lortzeko».

ZIKUÑAGAKO negozio batean, orain 10 egun, izan ziren gertaerak eta gero, non «zortez bakarrik zauri arinak egon ziren», Ricardo Crespo talde sozialistako bozeramaileak EH Bilduri ondorengoa eskatu dio. «Azterketa bat jarri behar du martxan, udal talde guztiekin partekatua, Hernanin gerta daitezkeen egoera arriskutsuei erantzun bat emateko, eta herritarrekiko hurbila eta eraginkorra den udaltzaingo bat edukitzeko helburuarekin».

Hernaniko PSE-EEK dio herriko «udaltzaingoaren egoera inguruko beste herrietakoarekin alderatuta okerragoa da. Hernanin bost udaltzaingoz osatutako hiru txandetan lan egiten den bitarte-

an, Arrasaten adibidez beste hiru txandako bost udaltzaingoz osatutako hiru txandak indartzeko. Eta Tolosan ere hiru txandetako bost udaltzaingoz gain 4 eta 6 pertsonen arteko errefortzu taldea dago bai goizean eta bai aratsaldean».

«Inguruko herrietan baldintza hobegotan daude udaltzaingak»

Crespok gogoratu du «gainera askotan bajak eta oporrak ez dira ordezkatzuten Hernanin, zerbitzua murriztuz. Ez gogoratzeagatik Hernanin denbora batean lan egin eta gero destino aldaketa eskatzen duen pertsonala, lan baldintzak

hobeak direlako beste herrietan, baita herri txikiagotan ere».

Crespok azpimarratu nahi du Hernani Gipuzkoako zazpigarren herria dela biztanle kopuru aldetik eta horrela izanik horri dagokion zerbitzua eskaini behar litzateke. «Ez da onargarria herritarrek izatea polizia lanak egiten dituztenak, udaletxea da zerbitzua hobetu behar duena». Gogoratu du baita ere «txotx denboraldian sortzen diren arazok asko direla eta hamarkada bat baino gehiago pasa eta gero EH Bildu ez dela gai izan konponbidea jartzeko. Beraz Hernaniko alderdi sozialistatik eskatzen dute Hernaniko udaltzaingoi baliabide gehiago ematea». ■

■ UDALA KONTZERTUA

Etziko kontzerturako 3 sarrera bikoitz zozketan, Kronikak

Kronikalarien artean zozketatuko dira Niko Etxart eta Maialen Errotabeheren kontzerturako. Sarrerak salgai daude Biterin 7,5 euroan.

NIKO Etxart eta Maialen Errotabeheren kontzertua eskainiko dute, etzi, 20:00etan, Biteri kultur etxean. Bere errepertorioaren zati bat zabalduko dute, bost musikariek batera. Sarrerak Biteriko ha-

rreran eskuratu daitezke dagoeneko, 7,5 euroan, baina Kronikalari bazara hiru sarrera bikoitz lortu ditzazkezu doan zozketan parte hartuta. Bihar asteazkenean egingo da zozketa. Kronikalari egiteko,

emaila idatzi kronika@kronika.eus helbidera; edo telefonoz deitu, 943 33 08 99 zenbakira. 25 euro dira, urtean. Gogoratu, Dobera-Kronikako bazkide laguntzaileak, badirela Kronikalari. ■

■ PORTU EGUNA



Auzotarrek lehiaketara aurkeztutako tortillak dastatu zituzten.

Festa borobila, Portu Egunean

Ezin hobeto pasa zuten aurten ere Portuko auzotarrek, pasa den asteko ostiralean, Portu Egunean. Gainera giro bikaina egin zuen eta bazkari, tortilla lehiaketa goxoez gozatu zuten. Ondoren, janaria jeisteko dantzaldian gorputzak mugitu zituzten eta borobil irten zen jardunaldia. Tortilla txapelketan lehenengo eta bigarren sari irabazleak Eva eta Lagarti izan ziren. ■

☞ JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaietan izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Sebastian Salaberria eta Iruña-Veleia

1999an, Sebastian Salaberriak bere esku-idatzi bat ekarri zuen Dobera euskara elkartera, makinaz idazteko. Izenburua: *Jesukristo gure jaunaren parabola*. Honatx, parabola horren hasiera, Sebastianek idatzi bezala:

«Zeru lurren Jaun eta Jabea dan gure Salbatzalea, bere bizitzan askotan bezelaxe, egun batez pentsatu omen zuan, Berri Ona zabaldu behar zuala eta San Pedro Santu aundia lagun zuala, abiatu omen ziran, biak jakiña, basamortuan barrena, etxe edo estalpe aukera geiegirik, etzan izango noski». (Parabola osoa irakurtzeko kronika.eus)

Esan dezadan, neuk ere txikitari, parabola hori etxean entzun nuela, Zumaian. Esan nahi baita, euskal herrietan nahikoa ezaguna izango zela parabola hori. Eta inork ere ez zuen zalantzan jarriko parabola hori ez zenik «Jainkoak esana». Eta ahalegindu egingo ginen parabola horren ikasgaiari jarraitzen. Eta gaur ere ahalegintzen naiz ni, nahiz eta fededun ez izan. Kontra-

esana? Bai. Baina, kontraesana baita parabolaren ikasgaia.

Baina parabola hori ez dugu inoiz ere entzungo, Elizan, Ebanjelioa irakurtzen denean.

Kontua da, 325garren urtean, Nizeako Lehen Kontzilioak 4 ebanjelio soilik onartu zituela. Ordura arte, ebanjelio gehiago zeuden 'Jesukristo gure jaunaren' jarraitzaileen artean. Izan ere, 'ebanjelio' hitzaren esanahia da: «berri ona». Sebastianek ere hala dio. Kontzilioaz geroztik, Salaberriaren bezalako parabolak kalifikazio berri bat izango du: apokrifoa (ezkutukoa). Gaurko hizkeran: klandestinoak.

Are gehiago: Eliza Katolikoak pertsegitu egingo zituen parabola apokrifoen jarraitzaileak, 'herejeak' zirelakoan, eta haietako 'hereje' asko surtan erreko.

Eta horrek guztiak zer ikusi du Iruña-Veleiarekin? Irakur hurrengo artikulua.

Sebastianek idatzi zuen Parabola klandestinoak Eskerrak ez den Inkisiziorik Bestela a zer destinoa

Jexux Eizagirre Portillo

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzan duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



AINHOA AUZMENDI TEJEDOR

Eskerrik asko Ainhoa.



EIZMENDI FAMILIAREN PARTEZ

Hernanin, 2018ko urriaren 16an

IRAGARKI MERKEAK

Emakume arduratsuek helduak zaintzen edota garbitasunean lan egingo luke (etxeak, ofizinak...) Deitu: 654 122 548
Onddi Akademia: LH, DBH eta Batxilerrerako laguntza, maila berdineko talde murriztuak. Asteleheneetik Ostiralera 15:30 - 20:00. Urbieta kalea 7. Deitu: 688 71 95 71
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

MASUSTA EKODENDA

IKASTAROETAN LEKU LIBREAK

- ☛ **Soinketa kontzientea:** astearte eta ostegun aratsaldean
- ☛ **Yoga:** ostelaren eta ostegun goizean
- ☛ **Zen meditazioa:** asteazken aratsaldean

Informazioa / Izen ematea:
Andreakale, 43 - Tel. 943 555 710



Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani